

UPN nafar erara

Ez da berria UPNk Nafarroako euskalkiei dien begikotasuna. UPNkoek tokiko euskal hizkeri dieten estimua agerian geratu da sarritan. Aipamen berezia urtetan UPNko presidente Jesus Aizpunek merezi du, nafarreraren EAEn egiten den euskal hizkuntza bera ez dela erran, eta nafarreraren hizkuntzaren tasuna aldarrikatzen iritsi baitzen, horretarako pisuzko argudioa emanda: baztandar batek bere solaskeran eta bizkaitar batek berean, ez diote elkarri ulertzen. Halaxe azaldu beharko zion baztandarren batek Aizpuni *ABC* besapean Elizondon barna pasaian zebileneko batean, berak euskaraz ez baitzekien. Hori da

kontua, trantsizio garaian UPNk euskal filologian trebatutako ideologorik izan balu, ziur asko nafarreraren euskara ez izatea nahikari politikoa egia (sasi)linguistikoa bihurtuko zuten, Valentzian bertako katalanarekin gertatu bezala.

Baina euskararen inguruan selebrekeriak erratea beti izan omen zaie barkakizun UPNkoei. Nafarroako euskal mintzamoldeen balioa aldarrikatzen bere perla bota zuen bertze bat Vicente Etayo dugu. Iruñeko UPNko zinegotzia zelarik –duela bi legealdi, oroimenak huts egiten ez badit– Iruñeko euskalkia sustatzea proposatu zuen. Pena UPNkoak aspaldian azken hats eginda dagoena berpizten bizirik dagoena akabatzen bezain trebeak ez izatea, zeren orain duela mende bat inguru azken hiztuna galdu zuen hego goi-nafarreraren suspertzearen aitzinean bai-keundeke.

Baina aurrekoak motz geratu dira Pedro Pegenautearen euskalki zaletasun sutsuaren aldean. Irakurri baino ez dugu egin behar Unibertsitatearako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren hitzak *Baztan solasean*. *Abozko tradizioaren bilduma* liburuaen aurkezpenean: “Euskal hizkuntza bakarras mintzatzea, batua soilik aipatzen dutenek egiten dute-



MIKEL SAIZ

na, errealitatea bera ukatzea da eta horiek ezin izanen dute inoiz lortu, genozidio linguistikorik eragin ezean. (...) Gauzak horrela, eremu euskalduneko nafarrek, euskararen aldagai dialektalak ikasi, garatu eta erabiltzeagatik –euskalkien iraupen eta etorkizunarengatik–, ez al zuten ikastetxeetan haiek sartzearen aldeko jarrera hartu behar, inolako konplexurik eta beldurrik gabe, haren suntsipena nahi dutenengandik etorriko diren eta etorriko lirakeen erresistentziak gailenduz? Baina horren alde borrokatu behar da”. Zuzendari nagusiaren hitzak nafarreradunondako hunkigarriak lirake zinismo ariketa hutsa ez balira. Pegenautearen

euskalki zaletasunari esker Pello Urquiolaeren *Nere hitze bertsoatan* Leitzako euskaraz idatzitako liburu xenofobo, homofobo eta ikastolen kontrakoa Nafarroako eskola eta herri liburutegi guztietan izanen dugu diru publikoz ordainduta.

Pegenautei –UPNri bezala– Nafarroako euskalkiek axola diete batuaren aurkako tresna izan daitezkeen aldetik soilik. Egun Nafarroan euskalkien aldeko eta batuaren aurkako diskurtso instituzionala euskararen kontrako bertze mozorro bat baino ez da. Finean, euskalkiak sustatzeko lehen bidea hitzunei erabiltzeko aukerak ematea da,

baina ez txokokeria etnografikoaren nostalgiaz hitzunei nafar hizkelki jatorra mintzo direla sinestarazita, noranahiko baliagarria den hizkuntza baten jabe direla sinestarazita baizik. Horixe da arriskua

UPNrendako, hizkuntzaren bidez geure burua atzematen dugula. Andaluzierazko Idazleen Batzordeak (Hunta d'ehkritoreh en andalú) idatzi bezala: “*Pa rematā la faēna, no podēmō orbiā, k'er rēppēto a nuētra çingulā manéra d'ablā, bá kondiçionā çin remēdio lo ke pençēmō lö andalúçē de noçótrō mimmō*”. Kendu *andalúçē*, paratu *nabarrö*, eta horixe eta bera. ■

« Pegenautearen euskalki zaletasunari

esker Pello Urquiolaeren *Nere hitze*

bertsoatan Leitzako euskaraz idatzitako

liburu xenofobo, homofobo eta ikastolen

kontrakoa Nafarroako eskola eta herri

liburutegi guztietan izanen dugu diru

publikoz ordainduta

